



DESBERDINTASUNAK

baztertuz

GARAPENA

lortu

 Lan Koadernoan
Lehen Hezkuntza
5-6



1. Jarduera Desberdintasunen bila

IDATZI TAULAN, NOLA BIZI DIREN
AFRIKA, AMERIKA ETA ASIAKO EMAKUMEAK

AFRIKA	AMERIKA	ASIA



Afrikan 600.000 bat emakume hiltzen da urtero erditzerakoan, Europan, berriz, 12.000. Hildakoen kopurua erdira murriztu liteke erditzean laguntzen dutenek eskuak garbituko balituzte, besterik gabe; higieneturri hau ez hartzeko arrazoiak hauek dira: urarekin dagoen arazoa, kultura falta eta kontinenteak bizi duen muturreko txirotasun egoera.

Erditzerakoan hiltzen diren emakumeak Europan hilgarriak ez diren infekzioak dituztelako, elikatu gabe daudelako, defentsa gutxi dutelako eta oso ahulduta dauzkaten beste gaixotasunak dituztelako hiltzen dira.



2. Jarduera: **Zergatiak bereizten**



Osasuna eta kultura

Urtean Saharaz hegoaldeko Afrikako eta Ekialde Ertaineko hiru milioi neskatari erazten zaie klitoria urtero.


Mozketa hau egitearen aldekoek zera esaten dute: nesken edertasuna, ohorea, gizarte maila eta kastitatea azpimarratzen duela erazketa honek.

Lau eta hamar urte bitarteko neskei egin ohi zaie. Hainbat lekutan ablazioa egiten zaien adina gero eta txikiagoa da, helduagoak diren neskek informazio pixka bat badute erazketa egiteari uko egin ez diezaioten. Ohikoa emagin batek nahiz esperientzia duen herriko andre zahar batek egitea da, inolako medikuntza prestakuntzarik gabeko batek edozelan ere; ebaketa higiene-baldintza oso eskasetan egiten da eta esterilizatu gabeko labaina, beira hautsi bat nahiz zorrozitutako harri bat erabiltzen dute, anestesiarik gabe.

Mingarria izateaz gain odoljarioak, infekzioak, antzutasuna eta, hainbatetan, nesken heriotza eragin ditzake.



Gaixoak eta erizainak



HIESa duten gaixoen erdiak emakumeak dira eta hauetako gehienak (%95) hegoaldeko herrialdeetan bizi dira.

Gaixo egoteaz gain HIESa duten familiartekoak zaindu egin behar izaten du emakume askok. HIESak jotako gaixoak zaindu behar hau dela eta emakumezkoen lan-karga handitu egin da (janaria prestatzea, garbitzea, ur bila joatea, nekazaritza lanak). Lan gehiago izatean ikasteko eta etxetik kanpora lan egiteko ahalmena murriztu egiten da, eta emakumezkoen txirotasuna handitu.


HIESaren tratamenduan mediku-laguntzaren %90 etxean bertan egiten da. Etxeko gaixoak (baita umezurtzak eta gaixoak erasandako beste familiartekoak ere) zaindu, elikadura eta sendagaiak ziurtatu eta semeen eskola ordaindu beharraren kezka lan fisikoari gehitzen zaionean, emakumeek ez dute beren osasuna eta ongizatea zaintzen.



3. Jarduera: **Premia bati erantzunez**


HIZKI ZENBAKIEN ARABERA, IDATZI DAGOKION LEKUAN HONDURASEKIN LOTURA DUTEN HITZ HAUEK

ARTOA - CORTÉS - DENGUE - FRIJOL - JOLOTE - CHORTI - OLANCHO - INTIBUCA - GARÍFUNA - ATLÁNTIDA - TEGUCIGALPA - DESNUTRIZIOA





HIZTEGIA EDO INTERNETEN LAGUNTZAZ, LOTU GEZIEN BIDEZ, HITZ BAKOITZA DAGOKION ARLOAREKIN



HURBIL ZAITEZ ZURE AUZOKO CARITASek DUEN BULEGORA ETA INFORMA ZAITEZ: ZEINTZUK DIRA, ZER EGITEN DUTE, ZERGATIK, NONDIK LORTZEN DUTE DIRUA,...



Otoitza egiteko



1

Eskerrik asko, Jainko Aita, sortu gaitzulako.
Zuk egin dituzu gizakiak, gizonak eta emakumeak.
Elkar errespetatuz eta elkar maitez bizi gaitzen nahi duzu.
Eskerrik asko bizitza eta osasuna emateagatik.
Eskerrik asko bizitzeko indarra emateagatik.
Lagun iezaguzu gure osasuna zaintzen.
Lagun iezaguzu natura zaintzen.
Lagun iezaguzu gizakion artean elkar ulertzen.



2



Jesus, emakume askok osasunik ez dutelako sufritzen dute.
Beste batzuk beren bizitza
familiako gaixoak zaintzen ematen dute bizitza.
Ezin dute ikasi, ezin dute etxetik kanpora lanik egin.
Ezin dute beren burua beren bizitza hobetzeko prestatu.
Jesus, lagun iezaguzu emakume hauekin solidarioak izaten
Herrialde hauetako agintarien alde eskatzen dizugu,
hezkuntzan diru gehiago erabil dezaten eta gutxiago gerran.

3

Jesus, zuk irakatsi diguzu maitasunaren agindua,
baina gizakiok ez diogu elkarri begirunerik erakusten:
elkar iraintzen dugu, elkar jotzen dugu.
Gizonezkoek emakumezkoak jotzen dituzte
eta beren seme-alabek negar egiten dute.
Jesus, erakuts iezaguzu elkar maitatzen,
arazoak hitz eginenez, begirunez, konpontzen.



4

Maria, sufritzen dutenen ama.
Zuk ezagutzen duzu beren senarrek jotzen dituztelako
negar egiten duten emakumeen mina.
Ez dugu emakumeek gaizki pasatzen jarrai dezaten nahi.
Eman iezaguzu emakumeei laguntzeko bihotz eskuzabala.



PROCLADE
San Francisco, 12A-3º
48003 - BILBAO
94 416 69 31
mision-bi@terra.es

Laguntzen du:

bbk